

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Ingeniería y Transformados del Inoxidable Dulantzi SLk baimena eskatu dio udalari Dulantziko Henaio Bidea kaleko 24an altzairu herdogaitza eraldatzeko zerginetan jarduteko

Ingeniería y Transformados del Inoxidable Dulantzi SLk baimena eskatu dio udalari Dulantziko Henaio Bidea kaleko 24an (1 poligonoa, 115 lurzatia) altzairu herdogaitza eraldatzeko zerginetan jarduteko.

Eta otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestekoak, bere 58.1 artikulua betez, jendaurrean jartzen da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, jarduera horrek nola edo hala kalte egiten diela uste dutenek aukera izan dezaten egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Espedientea udaletxeko bulegoetan dago gordeta, eta bulego orduetan dago aztergai.

Dulantzi, 2019ko urtarrilaren 9a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA